



Ref.:

## **EUSKO JAURLARITZAREN TRAFIKO ZUZENDARITZAK UDALEN ZEHATZEKO ESKUMENA BERE GAIN HARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA**

6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 84. artikuluan 4. ataleko 1. paragrafoan ezartzen duenaren arabera, “Hiri barruko bideetan egindako zirkulazioko arau-haustek zehatzeko eskumena alkateei dagokie, eta horiek eskuordetzan eman dezakete eskumen hori, dagokion araudian ezarritakoari jarraikiz”.

4. atal horren hirugarren paragrafoak hauxe ezartzen du: “Trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatuta dituzten autonomia-erkidegoetan, probintziako trafikoburuek eta dagokien organo eskudunek beren gain hartuko dute alkateen eskumena, baldin eta dagokion udalean nahikoa zerbitzu-baliabiderik ez badago edo justifikatutako beste arrazoi batzuk badaude”.

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak hiri barruko bideetan zirkulazioko arau-haustek zehatzeko udal eskumena bere gain hartu ahal izateko, ezinbestekoa da udalaren organo eskumendunak erabakitzea Trafiko Zuzendaritzari eskumen hori bere gain har dezala eskatzea eta eskaera hori eragiten duten arrazoiak zehaztea: udalean nahikoa zerbitzu-baliabiderik ez egotea edo beste arrazoi batzuk.

Udalak, erabaki hori hartu aurretik, trafikorako udal ordenantza izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko litzateke.

Erabaki hori hartu ondoren, Udalak Trafiko Zuzendaritza horretara bidaliko du.

Trafiko Zuzendaritzak eskumen hori bere gain izango du, erabaki hori hartzea eragin duten arrazoiak beren hartan irauten duten bitartean. Udalak edonoiz eskatu ahal izango du eskumena itzultzeko.

Trafiko Zuzendaritzak bere gain hartzen duen eskumena arau-hausteen instrukzioari eta zehapenari dagokie, baina eskumen horrek ez du barne hartzen arau-haustek egiten diren zaintzea eta horiek salatzea; izan ere, lan horiek udalaren beraren agenteek egin beharko dituzte edo, hala badagokio, Ertzaintzaren lankidetzara eskatuta, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Udalean zirkulazioko arau haustek egiteagatik jarritako isunekin jasotzen den diru-kopurua, Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusiaren kontuan sartuko da.